

## **Naranja Mekanika taldea berriro ere txapeldun**

2016/06/03

Astearte honetan Arrasateko areto futboleko udaberriko txapelketaren finala jokatu zen Brupa eta Naranja Mekanika taldeen artean. Norgehiagoka oso parekatua izan zen eta penaltien ostean Naranja Mekanika taldea garaile izan zen. Neguko txapelketan ere beraiek izan ziren irabazleak.

Datorren asteazkenean egun bakarreko futbol7 txapeketa antolatu dugu Musakolan eta Naranja Mekanikokoak bertan izango dira. Ziur gaude papel ona egingo dutela.

Hemen txapelketa guztiko emaitzak eta sailkapenak ikus ditzakezue.

Zorionak parte hartzaile guztiei eta batez ere Naranja Mekanikokoei!!!

